

Zer erakundetan arituko zinateke boluntario?

Gurutze Gorrian boluntarioak eskatzen ari dira. Horren berri ematen duen irratsaio batetik abiatuko gara eta bukaeran erakunde bat aukeratuko dugu boluntario jarduteko.

Ariketa hauek dituzu sekuentzia honetan:

- Boluntario-lanetan dugun esperientzia kontatu.
- Irratsaioa entzun eta ulermen-galderei erantzun.
- Hitz-kateak osatu, audioan entzundako kontzeptu edo espresioak osatzeko.
- Grabazioan boluntario izateko ematen dituzten arrazoiak idatzi.
- Erabaki boluntario izatekotan, zer erakunde aukeratuko zenuketean.



1. Gurutze Gorriko boluntarioak

Boluntarioei buruz jardungo dugu sekuentzia honetan. Hasteko, komentatu puntu hauek ikaskide batekin:

- Inoiz izan al zarete boluntario erakunderen batean?, zergatik?
- Zer dakizue Gurutze Gorriari buruz? Zertan aritzen dira?



Orain entzun Gurutze Gorriko bi boluntarioei egindako elkarrizketa. Esan ondoko esaldiak bat datozen ala ez esan dutenarekin.

	Egia	Gezurra
1. Felix eta Eneko gurasoak dira.		
2. Felix ikaslea da eta Eneko erizaina.		
3. Era guztietako jendea behar dute Gurutze Gorrian.		
4. Gurutze Gorriko lana aberasgarria da, baina denborarik ez baduzu ezin duzu lagundu.		
5. Felix eta Eneko dagoneko nekatuta daude, eta boluntario berriak eskatzen dituzte beraiek utzi ahal izateko.		
6. Boluntario batek dio hor ikasitakoak balio duela bizitzako beste arlo batzuetarako.		



<https://labur.eus/FSPc2>

2. Hitz-kateak osatzen

Lotu bi zutabeetako hitzak, audioan entzun diren kontzeptu edo espresioak osatzeko.

kanpaina gogo denbora zeure buruarekin baliagarri begietan	antzeman atera eduki martxan jarri ondo sentitu suertatu
---	---



Binaka jarrita, osatu esaldi batzuk hitz-kate horiekin.

- Batzuetan ez dugu hitzez eskerrak ematen, baina antzematen da begietan, keinuetan...
- ...



3. Boluntario izateko arrazoiak

Zer arrazoi ematen dituzte boluntarioa izateko? Entzun audioaren azken partea eta egin zerrenda zure hitzak erabiliz.

Audioan emandako arrazoiak:

Four horizontal orange bars for taking notes.



<https://labur.eus/FSPc2>

Arrazoi horietatik zein iruditzen zaizu garrantzitsuena? Beste arrazoi edo motibaziorik bururatzen al zaizu? Komentatu ikaskide batekin.

4. Hauetako zein aukeratuko zenuke?

Beheko fitxan, gure inguruan lan egiten duten GKE (gobernuz kanpoko erakunde) batzuen argazkiak ageri dira. Komentu zuen inpresioak horiei buruz eta erabaki zein aukeratuko zenuketen bertan boluntario aritzeko; eman horretarako dituzuen arrazoiak. Eztabaidatu zuen artean eta saiatu adosten.



Eginkizun hori betetzeko, **aditzak forma hipotetikoan** erabiltzea da egokiena: joango nintzateke, aukeratuko nuke, nahiago nuke, ilusioa egingo lidake...


- **Nik bat aukeratzekotan, Greenpace aukeratuko nuke.**
- **Ni ez nintzateke AtzeGIN arituko; oso gogorra iruditzen zait.**

ERANTZUNAK

1. Gurutze Gorriko boluntarioak

Egia	Gezurra
3-6	1-2-4-5

2. Hitz-kateak osatzen



3. Boluntario izateko arrazoiak

Audioan emandako arrazoiak:

- Oso positiboa da baliagarri sentitzea.
- Esperientzia polita da, aberasgarria, bete egiten zaitu.
- Asko ikasten da: bai jakintza aldetik, bai sentipen aldetik
- Boluntariorozan ikasitakoa aplika daiteke bizitzako beste arlo batzuetan.



TRANSKRIPZIOA

KAZETARIA, GIZONEZKOA. Gurutze Gorriak kanpaina jarri du martxan boluntarioak behar dituztelako. Betiko aitzakia izaten da: denborarik ez daukagula, estresatuta bizi garela, baina beti ateratzen da denbora horretarako gogoa baldin badago, ezta Maialen?

KAZETARIA, EMAKUMEZKOA. Bai. Eta horren adibide dira gure gonbidatuak. Felix Zubia, Zainketa Berezien saileko medikua, eta etxe honetako laguna. Egun on.

FELIX ZUBIA MEDIKUA, BOLUNTARIOA. Egun on.

KAZETARIA, EMAKUMEZKOA. Eta berarekin dator Eneko Marin irakaslea. Egun on zuri ere bai.

ENEKO MARIN IRAKASLEA, BOLUNTARIOA. Egun on guztioi.

KAZETARIA, GIZONEZKOA. Felix, Zainketa Berezien saileko medikua zara. Bi seme-alaben aita ere bazara. Nondik ateratzen duzu denbora Gurutze Gorrian aritzeko ere, Felix?

FELIX ZUBIA MEDIKUA, BOLUNTARIOA. Ba nire emazteari galdetu. Gutxi, bueno, lehen baino gutxiago daukat, baina beti ni, 19 urterekin sartu nintzen boluntario, ba ikasketen bigarren urtean nengoela...

KAZETARIA, GIZONEZKOA. Bai.

FELIX ZUBIA MEDIKUA, BOLUNTARIOA. Eta badira 24 urte, hortaz. Eta hortxe jarraitzen dut. Eta oraindik ere ikasten. Hau da, ikasten eta aberasten ez?, esperientzia guzti horiengatik.

KAZETARIA, GIZONEZKOA. 24 urte Felix, Gurutze Gorrian. Zertan, zer egiten duzu Gurutze Gorrian, Felix?

FELIX ZUBIA MEDIKUA, BOLUNTARIOA. Ba ia denetarik. Esaten dut, baina batez ere anbulantzia-zerbitzuetara edo zerbitzu, osasun-zerbitzuetara joan, prestakuntza eman, ikasketak, bueno ba, horretan hasten direnei... Eta gero denetarik behar denean, ba ia guztia.

KAZETARIA, GIZONEZKOA. Ba Felix lanbidez mediku da, zu ez zara mediku, Eneko.

ENEKO MARIN IRAKASLEA, BOLUNTARIOA. Ez. Ni irakasle.

KAZETARIA, GIZONEZKOA. Bai. Baina, hala ere, mediku ez bazara ere, edo erizain ez bazara, edo osasunarekin zerikusirik ez badaukazu ere, laguntza eman dezakezu Gurutze Gorrian.

ENEKO MARIN IRAKASLEA, BOLUNTARIOA. Inongo arazo gabe.

FELIX ZUBIA MEDIKUA, BOLUNTARIOA. Bai. Guk profil ezberdinetako jendea daukagu ez?, eta gainera behar dugu eta nahi dugu.

KAZETARIA, GIZONEZKOA. Bueno, esan dugu boluntario-kanpaina bat martxan daukazuela, jendea behar duzuela, erreleboa behar duzuela, laguntza behar duzuela... Ze perfileko jendea beharko zenukete?

FELIX ZUBIA MEDIKUA, BOLUNTARIOA. Ba edozein. 18 urtetik gora hasita,

KAZETARIA, GIZONEZKOA. ...edozein.

FELIX ZUBIA MEDIKUA, BOLUNTARIOA. Eta ez dakit muga bon jarri. Gizonezko zein emakumezko, borondatea duena eta denbora pixka bat eskaintzeko modua duena.

KAZETARIA, GIZONEZKOA. Ba esan duzu gainera hori, 18 urtetik gorako edozeinek lagundu dezakeela Gurutze Gorrian. Zenbat denbora eskaini behar zaio Gurutze Gorriari? Zeren esan duzu denbora behar da, zenbat denbora, Eneko?

ENEKO MARIN IRAKASLEA, BOLUNTARIOA. Bakoitzak daukana. Nik uste dut serioagoa dela. Nik asteburuetan aukera baldin badaukat edo, halakoetan, ahal, ahal dudan hori eskainiz gero, nahikoa da. Ez dakit, nire kasuan irakasle izanda, gorabeherak dauzkat.

KAZETARIA, GIZONEZKOA. Bai.

ENEKO MARIN IRAKASLEA, BOLUNTARIOA. Ekaina-bukaeran kanpaldiak direla, kurtso-bukaerako bilerak, denbora murriztu egiten da, baina udan, aldiz, denbora dezente daukat eta hor igo egiten da. Orduan, bakoitzaren aukeren arabera.

KAZETARIA, GIZONEZKOA. Bale.

KAZETARIA, EMAKUMEZKOA. Zuri boluntario izateak zer aportatu dizu edo zer aportatzen dizu?

ENEKO MARIN IRAKASLEA, BOLUNTARIOA. Ez dakit nik. Zurekin ondo sentitu eta besteei laguntzea. Eta Felixek esan duena: ba momentu larri horietan ba agian ez da atsegina, ez da gustukoa, baina aldi berean laguntzen ari zara, eta badakizu, ba beharra daukan pertsona horrek ikaragarri eskertzen dizula, eta askotan antzematen da bai begietan, edo irrifar soil batean. Ez da, ez da esan behar. Ez dakit. Baliagarri suertatzea oso positibo iruditzen zait.

KAZETARIA, EMAKUMEZKOA. Zalantzan dagoenari baina oraindik azken bultzada hori falta zaionari, zer esango zenukete?

FELIX ZUBIA MEDIKUA, BOLUNTARIOA. Ba esperientzia oso polita dela. Benetan beteko zaituela, eta hor ikasten duzunak betirako balioko dizula, bai jakintza aldetik, baina batez ere bizipen aldetik.

KAZETARIA, GIZONEZKOA. Eneko?

ENEKO MARIN IRAKASLEA, BOLUNTARIOA. Ba zeharo ados. Aberasgarria dela eta gero hor ikasten duzunak, aplikagarria dela bizitzako beste esparru batzuetan. Orduan, bai seme-alabak direla, ekipoetako entrenatzaileentzako, irakasleentzako, edo norberak etxean, lehen laguntza hori eman ahal izateko...

KAZETARIA, GIZONEZKOA. Ba hortxe. Eskaria egina dago. Boluntario-premia dauka Gurutze Gorriak eta hori adieraztera etorri zaizkigu Eneko eta Felix. Telefono-zenbaki hau gogoratuko dugu...

KAZETARIA, EMAKUMEZKOA. ...gogoratuko dugu: 943 22 22 22. Oso erraza.

KAZETARIA, GIZONEZKOA. Hori da.